

MAKE-UP MACHINE

4. DIRU SARRERA

Gure proiektuak diru sarrera iturri anitz ditu, negozioa sendo, jasangarri eta etorkizunerako prest egon dadin.

1. Zerbitzuagatiko diru sarrerak

Bezeroek makinak eskaintzen duen zerbitzu azkarragatik ordaintzen dute, aireportuetan, merkataritza gunetan edo antzeko espazio publikoetan egonda

Makina honek aurpegia eskaneatzeko eta makillaje pertsonalizatua jasotzeko aukera ematen du, esperientzia berezia sortuz eta bezeroei gure produktuak probatzeko aukera eskainiz.

2. Kosmetikoen eta produktu osagarrien salmentak

Kosmetikoen salmentak ere diru sarrera garrantzitsuak sortzen ditu, hala nola brotxak, desmakillatzaileak, makinarentzako kontsumigarriak edo bezeroaren azalaren arabera gomendatutako produktuak, esaterako kremak, kolore oihalak edo labialak

Produktu hauek online zein dendetan eros daitezke eta etorkizunean gure marka propioa sortzeko aukera ere badago.

3. Hileko kuotak eta bazkidetza sistemak

Hileko kuotak eta bazkidetza mailak eskaintzen ditugu bezeroek makina mugagabe erabiltzeko edo deskontu bereziak lortzeko

Aukerak oinarritzko, premium eta VIP mailak dira, bakoitzak bere beharretara egokitutako abantailak eskaintzen ditu eta horrek diru sarrera egonkorra ematen digu.

4. Zerbitzu ibiltaria eta ekitaldietarako eskaintza

Makina ekitaldietara, azoketara edo dendetara eramateko aukera eskaintzen dugu, bertan bezeroek aurpegia eskaneatu eta makillaje pertsonalizatua jasotzen dute, esperientzia dibertigarria eta marka sustatzeko modu bikaina sortuz

Horrez gain, online zerbitzuak eta enpresentzako zein profesionalentzako kontratuak garatzeko aukera ere badugu, negozioa handitu eta bezero berriak erakartzeko

Guzti honi esker gure diru eredia anitza, malgua eta iraunkorra da, ez gara iturri bakar batean oinarritzen eta negozioa modu eskalagarritz hazteko prestatuta dago.